

EBAZPENA, 2016ko otsailaren 10ekoa, Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatearena, Alba González Vives andrea, «Kimika Fisika» jakintza-arloan pertsonal ikertzaile doktore moduan kontratatzeko proposamena egiteko dena. Plaza horren deia 2012ko urriaren 29ko Ebazpenaren bidez egin zen (2012ko abenduaren 24ko EHAA).

Errektorearen 2012ko urriaren 29ko Erabakiaren bitartez (2012ko abenduaren 24eko EHAA) batzordea osatu zen Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatearen 2012ko urriaren 29ko erabakiak (2012ko abenduaren 24eko EHAA) pertsonal ikertzaile doktore iraunkorren kidegoan dei eginiko plazen horniketa epaitzeko eta berak eginiko proposamenarekin bat etorrita, Euskal Unibertsitate Sistemari buruzko otsailaren 25eko, 3/2004 Legean; Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailaren UPV/EHUko pertsonal irakasleen eta ikertzaileen araubideari buruzko martxoaren 4ko 40/2008 Dekretuan; Gobernu-Kontseiluak 2008ko uztailaren 16an pertsonal ikertzaile iraunkorra hautatu eta kontratatzeko onartu eta Irakasleen errektoreordearen 2008ko urriaren 20ko erabakiaren bidez argitaratutako prozeduran (azaroaren 26ko EHAA); deialdiko oinarrietan; aplikagarri zaizkion arau orokorretan ezarritakoarekin bat eginik; eta, aurreikusita ez dagoenerako, administrazio publikoan sartzeko araubide orokorra arautzen duten estatu mailako xedapenetan ezarritakoa kontutan hartuta.

Errektoreak ebatzi du Alba González Vives andrea, (NAN: 72544667-E) Euskal Herriko Unibertsitateko pertsonal ikertzaile doktore moduan kontratatzeko proposamena egitea, Kodea: IDPTCL1 – D00203 - 1. Jakintza arloa: «Kimika Fisika». Saila: «Zientzia eta Polimeroen Teknologia». Ikastegia: Kimika Zientzien Fakultatea. Hizkuntza betekizuna: Ez elebiduna. Arduraldia: osoa.

Proposatutako lehiakideak 20 laneguneko epea izango du, ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunetik kontaktzen hasita, dagokion lan kontratuaren formalizazio guztiak gauzatu eta plaza betetzeko, eta kontratazioaren aurretik lehiaketaren deialdiko 9. oinarrian zehazten den dokumentazio guztia aurkezteko, Deialdi eta Lehiaketa Atalean.



Universidad del País Vasco
Euskal Herriko Unibertsitatea

NAZIOARTEKO
BIKAINASUN
CAMPUSA
CAMPUS DE
EXCELENCIA
INTERNACIONAL

Leioa, 2016ko otsailaren 10a.

Errektorea,

Eginkizunak eskuordetuta (2013/01/30ko Ebazpena, 2013/02/13ko EHAA)



Irakasle-ikertzaileen arloko errektoreordea
XABIER ETXANIZ ERLE.

UNIVERSIDAD DEL PAIS VASCO
EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEA
REGISTRO DE RESOLUCIONES
ERABAKIEN ERREGISTROA
Resol. nº 443/2016 Erabaki Zk.